

TEKNOLOGIA

Nire txipak, nire mundua



DIANA FRANCO

Badirudi teknologien hegemoniaren lehiaketa zoroan, adimen artifizialak ekarriko duen errealitate berrian leku on bat izateko, dominatzeko leku on bat izateko, munduari forma emateko boterea izateko, txipak garrantzitsuak dira. Azken batean adimen artifiziala entrenaturiko erabaki-hartzaile bat da, eta entrenamendua txipetatik hasi daitekeela dirudi. Beraz, beharbada, jada erronka ez da txip txikiena egitea, beharbada orain txip argiena egitean dago lehia.

Horrek alerta sortu du orain arte gure bizitzetan hainbesteko boterea izan duten eduki plataformetan, eta hortaz arduraturik, enpresa teknologiko erraldoiek egun txipak ere konkistatu nahi dituzte, euren txip propioak sortuz. Hor erabakiko ote da etorkizunean gizarteak bideratzeko lekua?

Egun, gure gailuetan badugu zenbait autodefentsa digitalerako aukera, baina, noraino izango dugu aukera txipetatik konkistatuak izan diren gailuak moldatzeko?

Zelan erabiliko dituzte txipetan dauden adimen artifizialek gure inguruan dauden gailuetan dauden sentsoreak, bizi dugun mundua ulertu eta eragiteko? Zein mundu-ikuskerara hedatuko da gure gizarteetan txipetan dauden adimen artifizialen bitartez?

Zorionez, adimen artifiziala erregulatzeko ardura bada gure gobernuetan, zoritxarrez bizitzaren errealitateak kolonialismo digitalerako lur ondu bihurtzen gaituzte. Digitalizazioa, eta honi lotuta adimen artifiziala konplexutasuna kudeatzeko tresna boteretsu bilakatu den heinean, boterea kontzentratzeko arriskua dago ezagutza hori ez bada partekatzen, pertsonak lehengai bezala ulertzen baldin badira eta ez eragile bezala.

Bideratutako mundu honetan, auzia zera da: zelan lortu bide ezberdinak ibiltzeko zirrikituak sortzea zapalduen aldean zaudenean. ●

NAZIOARTEA



Hiroshiman egin da G7aren gailurra.

G7 HIROSHIMA SUMMIT 2023

Mende eta laurden geroago

MIKEL ARAMENDI

Hiroshimako G7 bilkuraren harira, ez da makala Marxek, Hegelen ahotan ipiniz, gehiegitan errepikarazi digun hori beste behin ere esateko tentaldia: “Hegelek dio, non edo non, historia unibertsaleko gertakari eta pertsonaia handi guztiak, esango genuke, bi aldiz agertzen direla; baina ahaztu egin zitzaion esatea: behin tragedia gisa eta beste behin fartsa modura”.

Ez dut uste inork ukatuko duenik 1945eko abuztuaren 6koa tragedia izan zela. Ameriketako Estatu Batuen istorio ofizialari men eginez “gerra laburtzeko ekintza izan zen” argudioa itsu-itsuan erosten dutenek ere ezin dute ukatu orduan eta ondoren hil ziren dozenaka, ehunka mila japoniar guztiak ez zutela ia inolako zerikusirik gerraren nondik norakoekin. Horren ondorioa historiako ekintza terroristarik handiena izan zela aitortzeko asmorik txikiena ere ez du erakutsi, haatik, oraingoan ere, egungo Trumanek.

Fartsa ote, orduan, Hiroshimako 2023koa? Bai eta ez. Memoriaren monumentura lore-eskaintza egitera hurbildu ziren zazpi goi-agintarien imintzioa ikusita, fartsa ez ezik trufa ere bazela esango nuke. Eta haien komunikatua irakurrita, balirudike arma atomikoak Errusiak, Ipar Koreak eta Txinak erabili zituztela.

Baina zilegi da ekitaldiaren beste ikuskera bat. Historiari erantsia

hura ere, baina fartsatik ezer gutxi lukeena. Ez dut uste Hiroshiman bildu diren zazpiak ohartuko ez zirenik duela mende eta laurden Zortzi Nazioen Aliantza osatu zuten berberak direla. Hain zuzen ere, orduko zortzigarrenaren, Errusiaren aurka epelak botatzeko, oraingoan.

Baina, batez ere, orduan eta orain jo-puntuak dagoen Txinaren aurka mehatxuak, madarikazioak eta birraoak jaulkitzeko. Hori baitzen Hiroshimako G7aren bene-benetako xedea. Eta beraiek ohartu ez badira, Txinan argi eta garbi ikusi dute antzekotasuna, nik uste. Ezikusiarrena egin eta Xi'anera begira jarri badira ere.

Bere ustez Txinaren ezagule sakona –eta, agerikoa denez, haren arbuiztaile sutsua– zen Hegelen gogoetara (eta Marxen iruzkinera) itzuliz, parekotasunaren bihurriketaria legoke Shimonoseki, Boxerren Matxinada eta Legazioen Auzoaren Setiotik igaro den mende eta laurdean. Ez alferrik, Hiroshimak berak erakutsiko lukeen bezala.

Auzora etorri eta Txinari desafioka aritzeak, gaur egun, mozkinen bat eman dezake Mendebaldeko zenbait iritzi publikotan. Baina inor ez du kikiltzen Zhongnanhain. Ez eta konbentzitzen ingurumarian. Performancearen politikagintzak beldurra eman ez baizik erakutsi egiten baitu. ●